



URRETXU eta ZUMARRAGAKO
GABONETAKO
XXXIII. KRISMA LEHIAKETA 2021

1. Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeek har dezakete parte lehiaketa honetan.
2. Hiru maila bereiziko dira:
 - A MAILA: LHko 1. eta 2. mailakoak
 - B MAILA: LHko 3. eta 4. mailakoak
 - D MAILA: LHko 5. eta 6. mailakoak
3. Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.
4. Krisma egiteko materiala egile bakoitzak aukeratu ahal izango du.
4. Lana egiteko garaian kontutan izan behar da zer den krisma bat: Gabonak zoriontzeko tarjeta. Beraz, lana gehienez A4 neurria duen kartulina, kartoia, papera edo antzeko material batean eginda egongo da.
5. Lanaren atzeko aldean ondoko datuak azaldu beharko dute:
 - 1.- Izen-abizenak
 - 2.- Ikastetxea, maila, adina
 - 3.- Helbidea eta telefonoa
6. Lan guztiak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean aurkeztu beharko dira, azaroaren 26a baino lehen.
7. Epaimahaiaren erabakia 2021eko abenduaren 17an, arratsaldeko 6etan, Urretxuko Liburutegian ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean sari banaketa egingo da, beti ere osasun egoerak ahalbidetzen badu eta aforo muga dela eta saritutako hurrekin.
8. Epaimahaia Zumarragako eta Urretxuko Udaleko Kultura Batzordeek izendatuko dute.
9. Sariak honela banatuko dira: Maila bakoitzean (A, B eta D) sari hauek emango dira:
 1. saria: diploma eta opariak
 2. saria: diploma eta opariak
 3. saria: diploma eta opariak
10. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.
- 11.- Saritutako lanak bi udalen webetan jarriko dira ikusgai.
- 12.- Norbaitek bere lana berreskuratu nahi izanez gero urtarrilaren 31 arte izango du aukera.